

EUSKALTZAIN OSOEI BATZARRERAKO TXOSTENAK ESKATUZ

1988, Ekainak 28

Euskaltzain jaun agurgarria:

Euskaltzaindiko Argitalpen-batzordeak bilera berezi bat egin zuen Donostian joan den Maiatzaren 20an. Bileraren helburua zen **Euskera** aldizkariaren egoera aztertu eta egoera hori hobetzeko agian beharko ziren aldakuntzez gogoeta egin.

Garbi ikusi zen han, alde batetik, **Euskera** aldizkariak maila-beheititze bat jasan duela *iker*-saileko lanen urritasunagatik; eta, bestetik, gaitz horren erroa zera zela: Euskaltzaindiaren arratsaldeko batzarreetan sail horretako lan gutiegi egotea. **Euskera**, Euskaltzaindiaren, agerkaria izanik, eta beronen azpi-titulua “Euskaltzaindiaren lan eta agiriak” delarik, badi-rudi hileroko batzarreetan irakurritako lanek behar diotela eman —neurri batean— kalitate eta duintasun hori, bai Euskaltzaindiko batzarreari eta bai **Euskera** aldizkariari ere. Hori kontutan izanik, erabaki bezalako bat hartu zen han: alfabetoaren ordenari jarraikiz, *iker*-saileko txosten bana eskatuko zitzaizela euskaltzainei arratsaldeko batzarrean aurkezteko. Alfabetoko ordenaren arabera, Altuna jauna da aurrenengoa, eta bera izango da, noski, aldi berri honi hasiera emango diona. Idazkari-ordea arduratuko da lana batzarrean aurkeztu behar duenari garaiz abisu emateaz. Txosten laburrak izango dira, euskara eta euskal gramatikari buruz.

Guzti honen berri Maiatzaren 27ko batzarrean eman genuen arren, iruditu zaigu egoki izango zela berariazko eskutitz bat egitea, denok jakitun ipintzeko. Euskaltzain jaun horri eskatzen dizugu, bada, ez diezaguzula zeure lankidetasuna uka, Euskaltzaindiko batzarrearen eta **Euskera** aldizkariaren maila hobetzeko da eta. Honenbestez, har ezazu ene estimazioaren agiri zintzoa.

Fr. Luis Villasante